


SECCION AMENA**¡BERAZ!**

¿Semia ondo ald?
 ¿Berririkan bada?
 —Ez degu aspaldiyan,
 Ondo izango da.
 —¿Nora jua zitzaitzuten
Amerik-etara?
 —Ez jauna, *ichasuetan*
Buenos-Aires-tara.

**BESTIAK BEZELA**

Miñikan eman gabe
 Jose sendagiñak
 Ateratzen diyozka
 Nor-nairi agiñak.
 —Josek miñ-gabe agiñak
 Atera nor-nairi?
 —Bai, miñik eman gabe...
 Bere buruari.

MIGEL A. IÑARRA-K.

